



TAXI MAHAIA / MESA DE TAXI

2020ko irailaren 15a

GAI-ZERRENDA:

1. Agurrak eta mahaikideen aurkezpena
2. Eredu berria aurkezteko bideoa: [ForoConsultivo-Getxo-CASTELLANO.mov](https://www.getxo.net/foroconsultivo-getxo-castellano.mov)
3. Ereduaren azalpena: PPT [Presentación mesas Hosteleria Comercio.pptx](#) /
Osagarria: [Suplemento Foro.pdf](#)
 - a. Helburuak eta funtzioak
 - b. Komunikazioa
 - c. Kronograma
4. Bestelakoak

BERTARATUTAKOAK: (% 100)

DEITUTAKOAK	BERTARATUAK	AUSENTZIAK	
		Justifikatua k	Justifikatu gabeak
Taxiaren sektorea	Javier Eguzkitza; Getxo Taxi Tour-en ordezkari gisa	X	
	Ricardo Martínez; Bizkai Taxi elkartearen ordezkari gisa	X	
Getxoko Udala – Sustapen Ekonomikoko Arloa	Mirene Zabalgogezkoa	X	
	Sonia Urdiain	X	

EDUKIAK:

1. Bertaratuak agurtu eta aurkeztu dira.
2. Enpresen eta udalaren arteko elkarriketarako eredu berria aurkezteko bideoaren proiektzioa.
3. Udal teknikariek helburuak, funtzioak, komunikazioa eta kronograma aurkeztu dituzte.



Getxo

Ekonomia - Sustapena
Promoción económica

bizi ezazu

3.1.- Helburuak eta funtzioak:

Sektore mahaietan azalduko dira sektoreak berak proposatutako proiektu guztiak, sektorearen interesekoak direnak edo estrategikotzat jotzen direnak.

Proiektuak martxan jartzea eta behar bezala gauzatzea zainduko dute kideek eta sektoreko beste batzuek, proiektuak pilotatzeko batzordeetan.

3.2.- Komunikazioa:

Helbide elektronikoak ahalbidetuko dira sektore bakoitzeko proposamenen berri mahaiko eta lantalde teknikoko kide guztiek izan dezaten.

Eta zabalpenerako ekintzak egingo dira, helburutzat izango dutenak mahai berria eta bertako ordezkariak ezagutzera ematea.

Sektore horren kasuan, Getxon jarduteko baimena duten 46 profesionalak elkartuta daude, eta elkartearen ohiko bitartekoak ere baditugu: posta elektronikoa, whatsApp taldea...

3.3.- Kronograma:

Kronograma azaldu da eta beharrezko azalpenak eman dira mahaien proposamenak urteko aurrekontuen onespenezekin denboran lerrokatzearen garrantzia ulertzeko.

Proiektuak landuta, lehenetsita eta kontraste politikoko mahaietan kontrastatuta egon behar dira hurrengo ekitaldiko aurrekontuetara aurkeztu ahal izateko.

Adierazi da, halaber, aurrekontu bat egongo dela ekitaldi berean proiektuak egin ahal izateko; ekintza txikiak baina esanguratsutzat jotzen direnak eta aukerako edo premiazko proiektuak.

4.- Sektorearen egoera eta hobekuntza eta/edo proiektu proposamenak.

Javi eta Ritxarrek bizi duten egoera azaldu digute:

- a) Autoerregulatzera eraman dituen lan-bolumena nabarmen murriztu izana (-% 50 gutxi gorabehera) (txandak, lizentzia bakoitzeko zerbitzu-orduak murriztea), biziraun ahal izateko.
- b) Bizkai Taxi zerbitzuaren mantentze-kostu handiak (langileak batez ere) eta duela gutxiko inbertsioa (30.000 € inguru) zerbitzuak izapidetzeko/kudeatzeko aplikazioa hobetze aldera.

Bizkai Taxi Getxoko taxilarien elkartearen izen berria da. Getxoko 46 lizentzia biltzen ditu, eta Uribe-Mungialderen 40 lizentzia inguru gehitu zaizkio (horregatik aldatu da izena). Kide izatearen hileko kostua: 250 €.-

Hauek zehaztu dituzte:



- Diru-sarrera handiagoak sustatzeko jarduerak. 2 bide posible baloratzen dira:
 - o Taxietan publizitatea ezartzea eta merkaturatzea, kultur ekitaldiak zabaltzeko Udalarekin zuten lankidetzaren hitzarmen zaharraren ildotik, baina beste iragarle batzuei irekita. Egingarria ote den zalantzak agertu dizkigute.
 - o Publizitatea saltzeko aukera baloratzea erreserba-aplikazioaren bertsio berrian.

- Beste batzuk: GetxoBerrin martxan jartzen ari diren berrikuntzak biltzen dituen artikulu bat jakinarazteko aukera baloratzea: aplikazio berria, gormutuentzako WhatsApp-a... ikusgaitasuna emateko.

5.- TAXI-MAHAIAREN ERABAKIAK (20.09.15):

AKORDIOAK/EKINTZAK	ARDURADUNA	DATA
1. Aktaren zirriborroa bidaltzea	Udal teknikariak	2020-10-05
2. Aholkulariekin hitz egitea, proiektu-formatua izan dezaketen gairik dagoen ikusteko.	Sonia	2020-10-15a baino lehen
3. Barne Erregimenarekin kontrastatzea taxilarietako publizitatea eraman dezaketen	Sonia	2020-10-30a baino lehen
4. Aztertu ea erreserben aplikazio berriak publizitatea ahalbidetzen duen	Ritxar / Javi	2020-10-15a baino lehen
5. Komunikazio-arloarekin harremanetan jartzea GetxoBerrin albiste bat zabaltzea baloratzeko (jakinarazi Ainhoari)	Sonia	2020-10-15a baino lehen